

 Gobierno de Navarra
Departamento de
Educación

- 8 OCT. 2004

Entrada

**VII.3. LEHEN HEZKUNTZA: BIGARREN ZIKLOA.
GURE PERTSONAIA GOGOKOENAK**

- 1. LANAREN TESTUINGURUA: Aurkitzen Gida. Zehaztasunak**
- 2. IRAKASLEEN EREDUA: Modelatze lana egiteko materiala.**
- 3. IKASLEEN AZKEN EKOIZPENA.**

1. LANAREN TESTUINGURUA: Aurkitzen Gida. Zehaztasunak

1. Edukiak

| | HIZKUNTZA IDATZIA | AHOZKO HIZKUNTZA |
|------------|---|--|
| Prozedurak | <p>Deskribapen informatiboa: pertsonaiak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ulermena <ul style="list-style-type: none"> • Gaiarena • Egituraketarena: gaia nola garatzen den - Ekoizpena <ul style="list-style-type: none"> • Planifikazioa: Izenburua, gorputzez nolakoa, izaeraz nolakoa. • Antolatzaile motak, funtzioak eta kokagunea. • Ortografia: puntua esaldi bukaeran, maiuskulak pasarte hasieran eta puntuaren ondoren. Komak enumerazioetan. Komatxoak izenburuan. • Txistukarien, h-aren eta r gogordun hitzak. • Kaligrafia: letraren ulergarritasuna, marjinak, lerroen arteko espazioa. | <ul style="list-style-type: none"> - Deskribapen informatiboa. Konparaketak - Ulermena eta ekoizpena <p>Jolaseko hizkuntza Jolaserako gonbidapena: <i>jolastuko dugu etxe-etxeka, dametan, partxisean?</i></p> |
| Jarrerak | <ul style="list-style-type: none"> - Hitzak alfabetikoki ordenatzea: letra desberdinaz hasten direnak eta letra berdinez hasten direnak. - Norberaren testu idatziak berrikusteak duen garrantziaren balorazioa. - Lanak txukun aurkezteak duen garrantziaren balorazioa. - Liburutegiaren erabilera eta arauetako errespetuzko jarrera. - Liburutegian informazioa bilatzeko ohitura. - Irakurtzeko zaletasuna. - Liburuak aukeratzeko irizpideak. | <ul style="list-style-type: none"> - Taldean hitz egiteko arauak errespetatzeko ohitura (hitz egiten ari direnean, isilik egotea, besteen iritziak entzutea, hitz egiteko txanda gordetzea). - Ikaskide nahiz irakasleekin euskaraz hitz egiteko ohitura. - Euskara tradizio eta kulturazko balioen transmititzaile gisa. - Kopla txikia: Ikusi nuenean. |

2. Hizkuntza idatzia

Eginkizunaren aurkezpena eta girotze lana

Ikasleen liburuan, 1. eta 2. mailako ikasleen liburutegirako pertsonaia ospetsuen deskribapenekin liburu bat egitea proposatzen zaie. Liburu horren orrialdeen formatua negoziatu daiteke ikasleekin: deskribapen hutsa, deskribapena goiko aldean eta marrazkia beheko aldean edo alderantziz. Liburuaren izenburua zein izango den, nork egingo duen, zein letra motaz, e.a ere eztabaidatu eta erabakiak hartuko dira.

Liburua egin nahi ez badute, beste egoera hau ere aurkez dakieke. Ikastetxeko edo ikastetxetik kanpoko pertsona batek, baina, ikasleentzat oso esanguratsua denak eskutitz honen antzekoren bat bidaliko die:

Kaixo haurrak:

Elena naiz eta mesede bat eskatzera natorkizue. Hauxe da mesedea:

Hurrei gehien gustatzen zaizkien telebistako, aldizkarietako, ipuinetako pertsonaiei buruzko liburu bat idazteko eskatu didate, baina arazo bat dut, nik ez dakit hurrei gustatzen zaizkien pertsonaiak nolakoak diren. Badakit zuek oso ongi ezagutzen dituzuela. Idatziko zenizkidakete pertsonaia horien ezaugarriak? Horrela, nik irakurriko ditut eta idatziko dut nire liburua. Egingo didazue mesede hori, ezta?

Mila esker eta musu bat denoi. Zuen idazlanen zain gelditzen naiz.

Eskutitz hau fotokopiatu eta haur bakoitzari eman dakioke irakur dezan.

Edukiak lantzea

Testu mota honen zailtasunik nabariena adjektiboen esanahia ulertzea eta adjektibo horiek erabiltzea litzateke. Beraz, eginkizun hori betetzera bideratu dira ariketa gehienak. Ulertzen dela garantizatzeko, aurkezten diren adjektiboen esanahia argituko da lehendabizi. Haurren batek esanahia baldin badaki, haur hori izango da azalduko duena; azalpena hitzez, mimikaz, objektua erakutsiz edo marrazkia eginez adieraziko da. Inork ez badaki irakasleak emango du azalpena. Eta haur bakoitzak, bere koadernoan apuntatuko du hitza, esanahia eta adibidea.

Izaera adierazten duen hainbat adjektiboren esanahia argitzea oso zaila izan daiteke. Hau errezteko bide bat honakoa:

Gaur egungo pertsonaiak hartuko dira kontuan eta haien izateko erarekin identifikatuko da argitu nahi diren adjektiboen esanahia. Adibidez:

Indurain txirrindularia, kementsua eta adoretsua da, karrera zaila izan arren ez duelako lan egiteko gogoa galtzen.

Aladin oso trebea da, teilatuz teilatu ibiltzen da, eta ez da erortzen...

Gaitasun onak gelako ikasleen adibideak erabiliz argi daitezke; okerrak adierazteko, berriz, kanpoko pertsonaiak hartuko dira kontuan.

Adjektiboak erabiltzeko eta buruz ikasteko, modako marrazki bizidunetako pertsonaien argazkiak emango zaizkie, koloretan ahal dela eta deskribapen fisikoa eta izaerazkoa egiteko eskatuko zaie. Lehenbizi, irakasleak egin ditzake deskribapenak, eta ikasleek zein pertsonaia den asmatu beharko dute.

Planifikazioa argi izan dezaten, ulermen ariketak egin ondoren, denek ikus dezaketen tokian itsatsiko da hau edo honen antzeko zerbait, horma irudi gisa:

| |
|--|
| <p>IZENBURUA</p> <p>“ZEIN TELESAIL EDO ZEIN IPUINETAKO PERTSONAIA DEN”</p> <p>GORPUTZEZ nolakoa den</p> <p>IZAERAZ nolakoa den</p> |
|--|

Eskemako osagai bakoitzaren txartelak egin daitezke, zailtasunak dituzten ikasleek manipulatzeko aukera izan dezaten. Adjektiboekin berdin joka daiteke eta sailkapen bat baino gehiago egiteko eskatu.

Ortografia ariketei dagokienez kontuan izan 1. unitaterako esandakoak.

Sintesi lana egiteko, modako pertsonaia bat hartu eta hura deskribatuko da arbelean, 1. unitatean adierazi den eran.

Ondoren, ikasle bakoitzak zein pertsonaiaren deskribapena egingo duen erabakiko du. Taldean erabakiko dute, ahalik eta errepikapen gutxien izateko. Oso garrantzitsua da ikaslearentzat pertsonaia ezagun-ezaguna izatea. Irakaslea konturatzen bada haurrak ez duela ongi ezagutzen, berak egingo dio pertsoanaiaren proposamena.

Deskribapena egiten hasi baino lehen marrazkia egitea proposa dakieke, edo pertsonaiaren irudia eman. Horrela, deskribapena xehetasun handiagoz egin baitezakete.

Deskribapena idatzi, nork berak zuzendu, eta irakasleak zuzendu ondoren liburuan txertatzeko orrialdean kopiatuko dute, eta liburuaren izenburua, egileena eta aurkibidea idatziko dituzte taldean, 1. unitatean proposatzen zen antzera.

Ebaluazioa

Informazioa jasotzeko ikasleen ekoizpena erabiliko da.

Alfabetoa

Ikas unitate honetan letra beretik hasten diren hitzak ordenatzen erakusteko ariketak proposatzen zaizkie.

3. Ahozko hizkuntza

Sekuentzia didaktikoa

Girozte lana

Antzerki txiki bat egingo dutela adieraziko die irakasleak. Batzuk ilargian izango dira eta besteak lurrean. Ilargitik lurrera mezu bat bidaliko dute han ikusi dituzten estralurtarrak deskribatuz.

Eredua emateko eta ulermena ziurtatzeko

Baliteke haurrek BAINO... -AGO eta BEZAINen arteko diferentziak ez menderatzea, euskaldun berriek batez ere. Ulermena ziurtatzeko eta eredia emateko honelako ariketak egin daitezke:

Gelako gauza batzuk hartu (arkatza, boligrafoa, paperak...) eta irakasleak konparaketak egingo ditu, honelako esaldiak erabiliaz:

Arkatz hau boligrafo hau bezain handia da; liburu hau koaderno hau baino txikiagoa da; poto hau beste hau bezain zikin dago...

Gelako haurren artean ere egin daitezke konparaketak:

Aitorrek Mikelek bezain oin handia du; Itziarrek Jonen baino ile motzagoa du; Xabier Jokin baino argalagoa da...

Animalien artean ere konparaketak egin daitezke:

Txakurra katua baino handiagoa da; txoria dortoka baino arinago ibiltzen da; jirafak katuak baino lepo luzeagoa du...

Buruz ikasteko, honelako egoera aurkez daiteke: irakasleak haur bakoitzari konparaketa erabiliaz gezur bat esaten dio eta haurrak egia bezala eman behar du. Adibidez:

Irakasleak: *Txoria elefantea baino astunagoa da.*

Haurrak: *Gezurra; elefantea txoria baino astunagoa edo txoria elefantea baino arinagoa da.*

Irakasleak: *lija kotoia bezain leuna da.*

Haurrak: *Gezurra; kotoia lija baino leunagoa da.*

Zuzen egiten ez duenari prenda bat jartzen zaio denen artean.

Joko hau hainbat alditan egin daiteke.

Beste egoera hau ere erabil daiteke: ipuinetako eta marrazki bizidunetako pertsonaiei buruz irakasleak galderak egingo dizkie.

- 1.- Son Gohan Son Goku baino indartsuagoa da?
- 2.- Oliver Benji baino adoretuagoa da?
- 3.- Txanogorritxo otsoa baino handiagoa da?
- 4.- Txanogorritxo Edurne Zuri baino handiagoa da?
- 5.- Txirri, Txiribiton baino potoloagoa da?
- 6.- Tortolika kohetea baino bizkarragoa da?
- 7.- Tortolika Kinton hodeia bezain bizkorra da?
- 8.- Mortadelo Filemon bezain argala da?
- 9.- Txiribiton Txirri baino hiztunagoa da?
- 10.- Chicho Terremoto Superman baino altuagoa da?
- 11.- Jerry Tom baino gaiztoagoa da?
- 12.- Inspektor Krusoe Pantera Rosa baino listoagoa da?
- 13.- Donald ahatea osaba Gilito baino aberatsagoa da?
- 14.- Popeye Brutus baino ahulagoa da?
- 15.- Brutus Olivia baino argalagoa da?
- 16.- Edurne Zuri ipotxak baino itsusiagoa da?
- 17.- Sorgina Edurne Zuri bezain zintzoa da?
- 18.- Sorgina Donald ahatea baino hobeagoa da?
- 19.- Superman Pantera Rosa bezain indartsua da?
- 20.- Chicho Terremoto Oliver bezain handia da?

- 21.– Txiribiton Olivia bezain argala da?
- 22.– Sorgina Txirri bezain barregarria da?
- 23.– Txirri Mirri bezain gaiztoa da?
- 24.– Pantera Rosa Barbantxo bezain txikia da?
- 25.– Edurne Zuri Brutus bezain gaiztoa da?

Komenigarria litzateke pertsonaia bakoitzaren marrazkia edo argazkia gelan izatea.

Ekoizpen egoera, ikasleen materialeko antzezpena izango da.

Ebaluazioa

Informazioa jasotzeko egoera, ikasleen antzezpenekoa izango da.

4. Jolaseko hizkuntza

Jolasteko gonbidapena egiteko zein esapide erabiltzen duten galdetuko die irakasleak, liburuko ariketak egiten hasi baino lehen. Horretarako, ikasleak bikoteka jarriko dira eta batak besteari pilotan, partxisean, dametan, futbolean... jolasteko gonbidapena egiteko eskatuko die irakasleak. Ateratzen diren esapide motak arbelean jarriko dira. Eta zein den zuzena eta zein okerra argituko dute denen artean.

71. orrialdeko ariketa egingo dute.

Ekoizpena

Irakasleak haur bakoitzari jolasen txartel bana emango die: xakean, partxisean, soka-saltoan, gomaka..., eta batak besteari jolas horretan aritzeko gonbidapena egingo dio.

Ebaluazioa

Ebaluaziorako informazioa jasotzeko, ekoizpen egoera eta jolas orduetako gonbidapenak aztertuko dira.

5. Bertsoak

1. unitateko sekuentzia bera erabiliko da. Orduan, silaba kontzeptua sartu bagenuen, oraingoan oinarena sartzen da.

6. Euskaraz hitz egiteko ohitura

Gida honen, sarreran “euskara erabiltzeko ohitura” atalean azaldu diren ekintzez gainera, honako hau egin daiteke unitate honetan:

Ikastetxean euskaraz hitz egitearen garrantzia azpimarratuko du irakasleak. Horretarako, taldeka horma irudiak egitea proposatuko du denen artean “sloganak” pentsatuz, adibidez.

“XXX ikastetxea euskararen alde”; “Guk euskaraz eta zuk?”, “Lanean euskaraz, jolasean ere bai”...

Txartel horiek ikastetxeko pasabideetan jar daitezke.

7. Ebaluaketa erregistroak

AHOZKO HIZKUNTZA

2. UNITATEA

TESTUA: DESKRIKAPEN INFORMATIBOA. KONPARAKETAK

PLANIFIKAZIOA

- Adjektibo egokiak erabili ditu
- *Baino...ago* egitura zuzen erabili du
- *Bezain* egitura zuzen erabili du

MORFOSINTAXIA

- Deklinabidea zuzen erabili du
- Deklinabide hutsegiteak
- Esaldiak zuzen eratu ditu
- Konparaketa esaldiak zuzen egin ditu

HIZTEGIA

- Zuzen erabili du
- Egin dituen hutsak

JOLASEKO HIZKUNTZA

- Jolaseko gonbidapenak egiteko esapideak zuzen erabiltzen ditu

BERTSOAK

- Badaki silabak bereizten
- Badaki zer den oina
- Badaki zer de errima
- Gustuko du bertsoak kantatzea

HIZKUNTZA IDATZIA

2. UNITATEA

TESTUA: DESKRIBAPEN INFORMATIBOA

PLANIFIKAZIOA

- Izenburua nabarmendu du
- Pertsonaiaren ospe jatorria adierazi du
- Bere itxurari buruz xehetasunak eman ditu
- Izaeraren ezaugarriak adierazi ditu

MORFOSINTAXIA

- Deklinabidea guztiz zuzen erabili du
- Egin dituen deklinabide hutsak
- Aditzen plural komunztadura egin du
- Esaldiko hitzak ongi ordenatu ditu

HIZTEGIA

- Testuari dagokion hiztegia guztiz ongi erabili du.
- Egin dituen hutsak

ORTOGRAFIA

- Gustuko du bertsoak abestea

HIZKUNTZA IDATZIA

- Idaztea gustuko du
- Istorioak irakurtzea gustuko du
- Informazio eta azalpen irakurgaiak ditu gustuko
- Komikiak irakurtzea gustuko du
- Aurkibideak eta aipamenak ematen duten informazioaz baliatzen badaki
- Liburutegiko arauak errespetatzen ditu

- Dagokion tokian puntuak jarri ditu
- Enumerazioetan komak jarri ditu
- Letra larriak zuzen idatzi ditu
- Hitzak ongi banatu ditu
- tz, ts, tx, z, s, x, h duten hitzak ongi idatzi ditu

KALIGRAFIA

- Neurri egokiko hizkiak ditu
- Trazoa egokia du
- Marjinak ongi gordetzen ditu orrialdean
- Lerroen arteko espazio orekatua gordetzen du

ALFABETOA

- Badaki buruz
- Letra desberdinez hasten diren hitzak ordenatzeko gai da
- Letra berberaz hasten diren hitzak ordenatzeko gai da

IRAKURKETA

- Deszifratzearen mekanika menderatzen du
- Testuko argumentuen haria jarraitzen du
- Testuan dauden informazioak erabiltzen ditu ulertzen ez dituen hitzen esanahia inferitzeko
- Irakurritakoa bere esperientziarekin eta aurrezagupenekin erlazionatzeko gai da

JARRERAK

AHOZKO HIZKUNTZA

- Taldean hitz egiteko arauak errespetatzen ditu
- Irakaslearekin beti euskaraz egiten du
- Ikaskideekin ikasgelan euskaraz egiten du
- Jolaseko hizkuntza badu

2003 - 04 / 3. MAILA
 EUSKARA
 HEGOALDE IKASTOLA
 2. UNITATEA: SAIATU eta IKASI

| | | | | | | | | | |
|------------------------------------|------|--------------------------------------|------|--|------|---|------|---------------------------------|------|
| KONPARAKETAK EGITEN | | JOLASERAKO GONBIDAPENAK EGITEN | | PERTSONAIEN DESKRIBAPENAK EGITEN | | PERTSONAIK NOLAKOAK DIREN ADIERAZTEKO HITZAK | | KOPLA TXIKIA : IKUSI NUENEAN | |
| Ikas | Etxe | Ikas | Etxe | Ikas | Etxe | Ikas | Etxe | Ikas | etxe |
| HITZAK ALFABETIKOKI ORDENATU | | PUNTUAK eta KOMAK | | H / TS / TZ / TX / S / Z / X dun HITZA IDAZTEN | | HITZAK SILABATAN BANATZEN | | LIBURUAK AUKERATZEN | |
| Ikas | Etxe | Ikas | Etxe | Ikas | Etxe | Ikas | Etxe | Ikas | etxe |

2003 - 04 / 3. MAILA
 EUSKARA
 HEGOALDE IKASTOLA
 2. UNITATEA: SAIATU eta IKASI

| | | | | | | | | | |
|------------------------------------|------|--------------------------------------|------|--|------|---|------|---------------------------------|------|
| KONPARAKETAK EGITEN | | JOLASERAKO GONBIDAPENAK EGITEN | | PERTSONAIEN DESKRIBAPENAK EGITEN | | PERTSONAIK NOLAKOAK DIREN ADIERAZTEKO HITZAK | | KOPLA TXIKIA : IKUSI NUENEAN | |
| Ikas | Etxe | Ikas | Etxe | Ikas | Etxe | Ikas | Etxe | Ikas | etxe |
| HITZAK ALFABETIKOKI ORDENATU | | PUNTUAK eta KOMAK | | H / TS / TZ / TX / S / Z / X dun HITZA IDAZTEN | | HITZAK SILABATAN BANATZEN | | LIBURUAK AUKERATZEN | |
| Ikas | Etxe | Ikas | Etxe | Ikas | Etxe | Ikas | Etxe | Ikas | etxe |

2003 - 04 / 3. MAILA
 EUSKARA
 HEGOALDE IKASTOLA
 2. UNITATEA: SAIATU eta IKASI

| | | | | | | | | | |
|------------------------------------|------|--------------------------------------|------|--|------|---|------|---------------------------------|------|
| KONPARAKETAK EGITEN | | JOLASERAKO GONBIDAPENAK EGITEN | | PERTSONAIEN DESKRIBAPENAK EGITEN | | PERTSONAIK NOLAKOAK DIREN ADIERAZTEKO HITZAK | | KOPLA TXIKIA : IKUSI NUENEAN | |
| Ikas | Etxe | Ikas | Etxe | Ikas | Etxe | Ikas | Etxe | Ikas | etxe |
| HITZAK ALFABETIKOKI ORDENATU | | PUNTUAK eta KOMAK | | H / TS / TZ / TX / S / Z / X dun HITZA IDAZTEN | | HITZAK SILABATAN BANATZEN | | LIBURUAK AUKERATZEN | |
| Ikas | Etxe | Ikas | Etxe | Ikas | Etxe | Ikas | Etxe | Ikas | etxe |

HEGOALDE IKASTOLA

EUSKARA, 3. maila

2. ikasunitatea

AURKEZPENA: 65. orrialdea: Gaiaren aurkezpena eta ekintzen jarraipena.

IKUSI ETA ENTZUN: 66. , 67. orrialdeak erabiliz; gidaren 55. orrialdean agertzen den moduan, antzerki txiki bat antolatu. Antzerkia burutu aurretik, bi orrialdeak denon artean aztertu. Ulertzen ez dituzten hitzak argi diezaiekiegu, baita agertzen diren egiturak gelako objektuetaz baliatuz, eta ondoren paperen hautaketa egin. Gidak 55. eta 56. orrialdeetan proposatzen dituen ariketak egin (pertsoneien argazkiak prestatzen eta plastifikatzen saiatzen ari naiz, **FITXA BAT** , etxean burutu dezaten).

Berriz ere, 66 eta 67. orrialdeetara itzuli. Ondoren, 68.ean proposatzen dena burutu. Bikoteka elkar kontrastatuz egin dezakete. Berdin 69. eta 70. orrialdea.

EBALUAZIOA: IKASLEEK BINAKA grabazioa egingo dute eta denbora izanez gero grabatu dutena antzeztu. Bi ideia bururatzen zaizkit:

- Estralurtarren antzerako zerbait antolatuz.
- Eurek maite edo gustuko dituzten bi pertsonaia konparatuz.
- Kontutan hartuko duguna alde aurretik azalduko diegu. Aurreko kasetean graba dezakete.

JOLASEKO HIZKUNTZA: JOLASTEKO GONBIDAPENA: Gidarena, 57. orrialdean alde aurretik egitea proposatzen omen du. (**TXARTELAK PREST DIRA, PLASTIFIKATURIK**).

71., 72. eta 73. orrialdeak binaka burutu. Ondoren, denon artean zuzendu, eta okerrak eta zalantzak argitu.

EBALUAZIOA: jolas orduetako gonbidapenak eta borondatez, bi proposamen graba ditzakete.

KOPLA TXIKIA: SILABA KONTZEPTUA ETA OINA. 74., 75. eta 76. orrialdeak

EUSKARAZ HITZ EGITEKO OHITURA: esloganen txartelak egin eta ikastolako barneko paretetan kokatu.

IDATZIZ: PROIEKTUA:

77. orrialdea, proiektuaren aurkezpena:

- Pertsonaia famatuei buruzko deskribapenak.
- Marrazkiak edo irudiak erabili oinarritzat.

78. eta 79. orrialdeetan aurre ezaguera egiaztatu.

Gidaren 53. orrialdean proposatzen digutena aurrera eramateko, adjektiboaren kontzeptua, ikasle guztion adibideekin landuko dugu. Hona hemen adjektiboen zerrenda bat, bakoitzaren ondoan ikasle baten izena jar dezakegu, honela adibideak erraz gauza ditzakegu:

- | | |
|--------------|-------------------|
| 1. ABILA | 16. HITZONTZIA |
| 2. ADORETSU | 17. IAIOA |
| 3. ALAIA | 18. IKUSEZINA |
| 4. ALTUA | 19. IRRIBARRETSUA |
| 5. ARDURATSU | 20. IXILA |
| 6. ARGALA | 21. JOLASTI |
| 7. ATSEGINA | 22. JOSTARIA |
| 8. AUSARTA | 23. KEMENTSU |
| 9. AZKARRA | 24. LANGILE |
| 10. BAXUA | 25. MAITAGARRIA |
| 11. BIZIA | 26. POSPOLINA |
| 12. BIZKORRA | 27. TREBEA |
| 13. FINA | 28. TXIKIA |
| 14. GOGOTSU | 29. TXUKUNA |
| 15. HANDIA | 30. ZORIONTSU |

80. orrialdea, ereduaren azterketa. Bakoitzak bere ulergarritasunaz jabetu, betiko moduan. Azaltzeko izan daitekena:

PERTSONAIA NAGUSIA: *pertsonaia printzipala, zentrala / bigarren mailakoa.*

TXIKI XAMARRA: *nahiko txikia, piska bat txikia.*

LIRAINA: *dotorea, pinpirina, apain/ itsusi, zatar.*

ILE LUZEXKOA: *luzanga/ labur.*

IZUGARRI HORAILA: *ikaragarri horiska / eskas.*

TXIRIKORDATAN: *ile mototsetan, iletxortatan.*

URDIN-URDINAK: *oso urdinak.*

OREZTATXOAK: *orinak, pekak.*

AUSARTA: *kementsu, izukaitza, adoretzu/ beldurti, koldarra.*

IZUKAITZA: *adoretzu, ausartal beldurti, izuti, ikarati.*

MANAGAITZA: *esan txarreko, bihurri/ esanekoa, manaerraz.*

JATORRA: *ona, formal / gaizto, maltzur.*

Testuaren ezaugarri orokorraz jabe daitezten, holako galderak esan, denon artean erantzuten joan:

- Zein da ipuinaren izenburua?
- Nor da txanogorritxo ipuin barruan?
- Nor da ipuin horren pertsonaia nagusia?
- Nolakoa da gorputzez?
- Bere buruaren ezaugarrien adierazpena?
- Nolakoa da bere ilea, nola du banandurik?, ...bere aurpegia?, bere begiak?, bere sudurra?
- Zer adierazten digu pertsonai nagusiaren izakeraz?.

81. eta 82. orrialdeak, ulermenaren ebaluaketarako erabili. Ongi aztertu badugu, 80. o.a., aurre ezaguera nahiko izango dute eta hizkuntza inferentziak egin ahal izango dituzte autonomoki uler dezaten.

83. orrialdea, TXARTEL bat, DIN A 3 fotokopiatu, koloreztatu eta planifikatu.

84. orrialdea, irakurri eta pentsatu ondoren, testuan ulertzen ez dituzten hitzak denon artean argituko ditugu. Ondoren bakoitzak bere lana burutuko du.

IZUGARRI : *ikaragarri, oso / txiki.*

ARGALA: *mehea, estu / lodi, gizen.*

ARINA: *bizkorra, pisu gutxikoa / astuna,*

BIRIBIL-BIRIBILA: *oso borobila, zirkularra.*

ILUNAK: *beltzak/argiak.*

IZAKERAZ: *karakterrez, temperamentuz, tankera, seinu.*

BORONDATE ONEKOA: *gogo onekoa, jarrera eta asmo onekoa.*

SAIATUA: *langile, fina, arduratsu / alferra.*

ESANEKOA: *hitzekoa, zerbitzari / gezurti.*

ALAIA: *irribera, pozkor, jostari / triste, goibel.*

84. eta 85. orrialdeak banaka erantzun. Elkarrekin zuzendu, iritziak kontrastatu, datuak hartu.

86. orrialdearen esanahia ikasleekin aztertu. Bereziki:

SENDOA: *trinkoa, osasuntsu / ahula, gaixo.*

MARDULA: *sendoa, lodia, indartsu / argala, ahula.*

ARGALA: *indarge, meharra / ahula, lodia.*

AHULA: *makal, nekatu / sendo, mardul.*

LIRAINA: *dotore, pinpirin, pertxenta / itsusi, zatarra.*

Ondoren bakarrik burutu 86. eta 87. orrialdeak.

88. orrialdea egin aurretik, datozen hitzak landu:

KIZKURRA: *kiribila, bihurritua, txirbila / lisoa .*

LEUNA: *lau, liso, fin / latza, zakar.*

HORAILA: *horixka, horasta, ile hori.*

TXIMOSOA: *ile multzo nahasia, kalpartsu, tximadun.*

89. eta 90. orrialdeak burutu aurretik, hurrengo hitzak landu:

GIHARTSUAK: *muskulutsua, indartsua / makala, ahula.*

JAPONIAR: *Japonian sortua.*

GIZENA: *lodia, potoloa, mardula.*

TAMAINA-TAMAINAKOA: *taimana egokikoa*

IRRIBARRETSUA: *irrikorra, alaia / triste, goibel.*

91. , 92. , 93. eta 94. orrialdeak landu baino lehen, datozen hitzak argitu:

APALA: *umila, esanekoa / harroa.*

TREBEA: *iaioa, habila, moldatsu / traketsa, moldagabe.*

GURIAK: *mardulak, lodiak, potoloak.*

BALDARRA: *traketsa, dorpea, zakarra / dotore, trebea.*

HERABEA: *lotsati, kikila / ausarta, adoretsu.*

95. eta 96. orrialdea egin aurretik, argitu diezaiekegu egitura osoa erabiltzearen beharra.

Adibidez:

- Zakarkeriak egiten dituen pertsonari? Zakarra esango nioke.
- Asko lotsatzen den pertsonari? Lotsati edo herabea esango nioke.

97. orrialdeari aurre egin baino lehen, hauxe azaldu:

SETATIA: *temati, egoskor, burugogor.*

99. orrialdearen adibidea, denon artean, aztertu ondoren, bakoitzak 100., 101. eta 102. orrialdeak erantzun.

2003-04/ 3. MAILA
 EUSKARA: 2. IKASUNITATEA : EBALUAZIORAKO ERREGISTROA
 HEGOALDE IKASTOLA
 IZENA:
 HIZKUNTZA IDATZIA
 TESTUA: *Deskribapen informatiboa*

| | | | | |
|--|--|--|--|--|
| IRAKURKETA / EKOIZPENA | | | | |
| - Dezifratzearen mekanika menderatzen du. | | | | |
| - Testuko argumentuen haria jarraitzen du. | | | | |
| - Testuan dauden informazioak erabiltzen ditu ulertzen ez dituen hitzen esanahia inferitzeko | | | | |
| - Irakurritakoa bere esperientziarekin eta aurrezagupenekin erlazionatzeko gai da | | | | |
| PLANIFIKAZIOA | | | | |
| - Izenburua nabarmendu du | | | | |
| - Pertsonaiaren ospe jatorria adierazi du | | | | |
| - Bere itxurari buruz xehetasunak eman ditu | | | | |
| - Izaeraren ezaugarriak adierazi ditu | | | | |
| MORFOSINTAXIA | | | | |
| - Deklinabidea guztiz zuzen erabili du | | | | |
| - Egin dituen deklinabide hutsak | | | | |
| - Aditzen plural komunztadura egin du | | | | |
| -Ealdiko hitzak ongi ordenatu ditu | | | | |
| HIZTEGIA | | | | |
| -Testuari dagokion hiztegia guztiz zuzen erabili du | | | | |
| - Egin dituen hutsak | | | | |
| ORTOGRAFIA | | | | |
| - Dagokion tokian puntuak jarri ditu | | | | |
| - Bi puntuak jarri ditu | | | | |
| - Antolatzaileen ondotik komak jarri ditu | | | | |
| - Enumerazioetan komak jarri ditu | | | | |
| - Letra larriak zuzen idatzi ditu | | | | |
| - Hitzak ongi banatu ditu | | | | |
| - tz, ts, tx, z, s, x, h eta r gogorra duten hitzak ongi idatzi ditu | | | | |

| | | | | |
|--|--|--|--|--|
| KALIGRAFIA | | | | |
| - Neurri egokiko letrak ditu | | | | |
| - Trazoa egokia du | | | | |
| - Marjinak gorde ditu | | | | |
| -Lerroen arteko espazio orekatua gordetzen du | | | | |
| ALFABETOA | | | | |
| - Badaki buruz | | | | |
| - Letra desberdinez hasten diren hitzak alfabetikoki ordenatzeko gai da. | | | | |
| - Letra berberaz hasten diren hitzak ordenatzeko gai da. | | | | |

| | | | | |
|--|--|--|--|--|
| JARRERAK | | | | |
| - Idaztea gustuko du | | | | |
| - Istorioak irakurtzeko zaletasuna adierazi du. | | | | |
| - Informazioa eta azalpen irakurgaiak ditu gustuko | | | | |
| - Komikiak irakurtzea gustuko du | | | | |
| - Aurkibideak eta aipamenak ematen duten informazioaz baliatzen badaki | | | | |
| - Liburutegiaren erabilera eta arauetako errespetuzko jarrera adierazi du. | | | | |
| - Liburuak aukeratzeko irizpideak azaltzen ditu. | | | | |
| - Lanak txukun aurkezteaz arduratu da | | | | |

UNITATE HONEN EMAITZ OROKORRA:

HIZKUNTZA IDATZIA:

AHOZKO HIZKUNTZA:

AHOLKUAK:

2. UNITATEA : AHOZKO HIZKUNTZA

TESTUA: *Deskribapen informatiboa. Konparaketak / jolasean aritzeko gonbidatzen*

- Grabatu du

| | | | | |
|--|--|--|--|--|
| PLANIFIKAZIOA | | | | |
| - Adjektibo egokiak erabili ditu | | | | |
| - Baina... ago egitura zuzen erabili du | | | | |
| - Bezain egitura zuzen erabili du | | | | |
| MORFOSINTAXIA | | | | |
| - Deklinabidea zuzen erabili du | | | | |
| - Deklinabide hutsegiteak | | | | |
| - Esaldiak zuzen eratu ditu | | | | |
| -Konparaketa esaldiak zuzen egin ditu | | | | |
| HIZTEGIA | | | | |
| - Zuzen erabili du | | | | |
| - Egin dituen hutsak | | | | |
| JOLASEKO HIZKUNTZA | | | | |
| -Jolaseko gonbidapenak egiteko esapideak zuzen eabiltzen ditu. | | | | |
| BERTSOAK | | | | |
| - Badaki silabak bereizten | | | | |
| -Badaki zer den oina | | | | |
| -Badaki zer den errima | | | | |
| - Gustuko du bertsoak kantatzea | | | | |
| JARRERAK | | | | |
| - Taldean hitz egiteko arauak errespetatzen ditu | | | | |
| - Irakaslearekin beti euskaraz egiten du | | | | |
| - Ikaskideekin ikasgelan euskaraz egiten du | | | | |
| - Ikaskideekin euskaraz hitz egiteko ohitura du. | | | | |
| - Jolaseko hizkuntza badu | | | | |
| - Gustuko du bertsoak abestea | | | | |

AHOLKUAK:

HEGOALDE IKASTOLA

EUSKARA: 2. ikasunitatea: **KONPARAKETAK EGITEN**

DATA:

IZENA:

Hasteko, Irakur itzazu datozen galderak. Ondoren, erantzun itzazu esapide osoa erabiliz:

1. Son Gohan Son Goku baino indartsuagoa da?

...

2. Txanogorritxo otsoa baino handiagoa da?

...

3. Mortadelo Filemon bezain argala da?

...

4. Jerry Tom baino gaiztoagoa da?

...

5. Donald ahatea osaba Gilito baino aberatsagoa da?

...

6. Sorgina Edurne Zuri bezain zintzoa da?

...

7. Brutus Olivia baino argalagoa da?

...

8. Pantera Rosa Barbantxo bezain txikia da?

...

9. Txiribiton Olivia bezain argala da?

...

10. Superman Pantera Rosa bezain indartsua da?

...

Oso ongi, langile!

PERTSONAIEN

DESKRIBAPENA NOIA EGIN


Deskribapena egiteko...

Lehendabizi, **IZENBURUA** jartzen da. Kasu honetan deskribatuko dugun pertsonaiaren izena, beti bezala, nolabait nabarmenduta.

Gero, zein telesail edo ipuinetako pertsonaia den adieraziko da. Ondoren, duen itxuraren berri emango dugu:

Gorputzez, nolakoa den adieraziz. Begiak, ilea, sudurra, hortzak, hankak, besoak... nolakoak dituen esanaz.

Bukatzeko, izakeraren ezaugarriak adieraziko ditugu.



HEGOALDE IKASTOLA

EUSKARA: 2. unitatea:

PERTSONAIEN DESKRIBAPENA EGITEKO OSAGARRIAK

GORPUTZA

Ahula
Altua
Argala /Fina / Meharrak
Baxua
Gizena /Potoloa /Lodia
Gihartsua
Guria
Handia /Kozkorra
Indartsua
Liraina
Mardula /Gihartsua
Sendoa/ Osasuntsua
Txikia /Nimino/ Kaskar
Zabalak

ILEA NOLAKOA

Beltza
Horaila
Kizkurra /Kiribila /Kiribiloa
Leuna /Lisoa
Luzea
Marroixka /Gorrixka
Motza
Murrirtza /Eskasa
Tximosoa
Urdindua

BEGIAK

Alaiak
Argiak
Argitsuak
Berdeak
Biziak
Gardenak
Goibelak /Tristeak
Handiak
Irekiak
Irrifartsuak
Lainotuak
Marroaiak
Negartiak
Txikiak
Urdinak

BESOAK ETA HANKAK

Ahulak
Gihartsuak /Mardulak
Gogorak
Guriak /Bigunak
Handiak
Indartsuak
Luzangak /Luzeak
Meharrak
Motzak
Sendoak
Trinkoak
Txikiak

IZAKERA

Adoretsua

Apala /Lasaia

Ausarta / Izukaitza

Baldarra /Zakarra /Traketsa

Beldurtia / Herabea

Bihotz-zabalekoa

Bihurria

Borrokalaria

Esanekoa / Fidagarria /Hitzekoa

Eskuzabala

Goxoa

Hiztuna /Berritsu

Ixila

Ixila

Jatorra

Jostalaria /Txantxalaria

Kementsua

Leiala

Maitagarria /Xarmanta

Managaitza

Ondratua /Prestu

Saiatua

Setatia

Traketsa

Trebea

Zintzoa /Ona /Bihotz handikoa

Zuzena /Zehatza

HEGOALDE IKASTOLA

EUSKARA: 2. UNITATEA : PERTSONAIEN DESKRIBAPENA

PROIEKTUAREN AZKEN ATALA GAUZATZEKO AHOLKUAK

Dagoeneko, pertsonaiak nola deskribatu daitezkeen ikasi dugu. Orain, zure txanda da.

- **Aukera ezazu** atsegin zaizun **pertsonaia**. Zinemakoa, telebistakoa, ipuinetakoa... izan daiteke.

NEURE GOGOKO PERTSONAIA:.....

- **Irakasleari berria eman.**
- Pertsonaia horren inguruko **datuak bildu eta idatzi** edo fotokopiatu.
- Bere **irudia edo argazkia lortu** eta gorde, azken ekoizpenerako beharko duzu eta.
- Testu liburuko **adibideak kontsultatuz** eta landutako **ereduak behar duzun haina behatuz**, koadernoan, zure gustuko pertsonaiaren lehenengo ekoizpena gauzatu.
- Liburuko 111. eta 112. orrialdeetaz baliatuz, **egindako lana zuzendu**. Sartutako akatsetaz ohartu eta saiatu hobetzen.
- Lana hobetzeko, **zure bikoteari egindakoa erakutsi eta aholkuren bat eskatu**. Lagunak, kontseiluak idatziz jarriko dizkizu eta zuk, esandako gomendioak kontutan hartuz, zure deskribapena berriz ere idatziko duzu.
- Oraingo testua **irakasleari aurkeztu**. Berak gomendatzen dizuna kontutan hartuz, **liburuan berridatzi**.
- Berriz ere, Irakasleak aztertuko dizu berregindakoa eta aholkuren bat idatziko dizu ere.
- **ZURE PERTSONAIAREN DESKRIBAPENA gelako liburuan agertzeko prest dago**. Har ezazu pilot beltza, Din A 4 orri bat eta idazteko plantila. Orain, letra txukunez pasa ezazu garbira. Amaitzeko argazkia itsatsi.

HELMUGARA HELDU ZARA: LAN BIKAINA, ZORIONAK!

2. IRAKASLEEN EREDUA: Modelatze lana egiteko materiala.

- gorputza
- izaera

EL DEVORADOR DE ESPINACAS MÁS FAMOSO


Popeye el marino cumple 75 años

UROPA PRESS @ 18-1-2004 12.11

UEVA YORK (EEUU).- Con sus brazos tatuados y su peculiar forma de hablar, Popeye ha cumplido este fin de semana 75 años. El marino, que desembarcó el 17 de enero de 1929, apareció como un personaje secundario en la historia 'Thimble Theater' diseñada por E.C. 'Elsie' Segar para el diario neoyorquino 'Evening Journal'.

Desde entonces, nadie ha podido parar al ilustre devorador de espinacas, pretendiente de Olivia, rival de Brutus y protector de Pocoliso, que incluso llegó a remplazar a Mickey Mouse como el personaje de animación más popular en Estados Unidos.

El personaje (que significa ojo saltón en inglés), con sus pantalones azules, camisa negra, gorro blanco y pipa en boca, hizo su aparición por primera vez en una tira cómica que narraba las aventuras de Ham Gravy, su novia Olive Oyl y su hermano Castor. Popeye nació con la frase 'Ja, think I'm cowboy?' ('Ja, ¿acaso piensas que soy un vaquero?') a la pregunta de Castor 'Are you a sailor?' ('¿Eres un marinero?').



Popeye y Olivia. (AFP)

